


KRONIKA > EHU-KO UDA IKASTAROAK

TXILLARDEGI «PRAKTIKAREN EHIZTARIA», UNIBERTSITATEAN



Ander Iturriotz, atzo, Donostiako Miramar jauregian.

Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Nagore BELASTEGI

GIZON PRAKTIKOA ZEN TXILLARDEGI, EUSKAL HERRITAR GEHIENAK EZ BEZALA. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN ALDE BORROKATU ZEN BETI, JENDEA KONTZIENTZIA-TZEKO PRAKTIKOTASUNETIK JOZ. BERAK MARRAZTUTAKO BIDEARI ESKER DUGU EGUNGO EUSKAL HERRIA.

Euskal Herriko Unibertsitateko Uda Ikastaroen baitan, Jose Luis Alvarez Enparanza *Txillardegiri*

buruzko saioak eskaintzen ari dira egun hauetan. "Txillardegia eta euskal idazleak" ikastaroaren zuzendaria Fito Rodriguez irakaslea da eta berarekin batera beste hizlari ugari ari dira. Tartean, Ander Iturriotz soziologia irakaslea. ikastaroaren xedea pentsalariak utzitako arrastoa aztertzea da.

Iturriotzek berak Txillardegiren ekarpenak aztertu zituen. «Praktikaren ehiztari bat zen», zehaztu zuen adituak. Bere ustez, landu zituen arlo guztietan «persona integroa» zen; alegia, berdin da zein testu irakurri beti mantentzen baitzuen ideologia berbera, nahiz eta oso kritikoa izan. Bere borroka beti euskara eta euskal kulturaren aldekoa izan zen, eta jendea kontzientziazteko bidean eredu praktikoak

hartzen zituen. Esaterako, bera izan zen euskara batuaren sortzaileetako bat. Euskaltzaindiak ez zuen horretan pentsatu, uste zuen euskara hizkuntza akademiko bat zela, baina Txillardegik zioen «hizkuntza bizia» izan behar zuela etorkizunean ez desagertzeko. Hala, euskara batuarekin batera aditz taula bat sortu zuen alfabetizazio prozesurako balio zuena; analfabetoak ziren euskal herritarrek ere euskara ikas zezaten. «Duela gutxi euskara ikasteko kanpaina bat egon da, honela ikus dezakegu zein aurreratu zen Txillardegiren diskurtsoa», aipatu zuen Iturriotzek.

Euskararen aldeko mugimendurekin batera, kulturaren inguruko herrigintza prozesu bat sortu zen, berak nazio bat batez ere kultura dela ulertu baitzuen. Haren ustez, Euskal Herriak euskararekin bat irauango zuen edo ez zuen irauango. Egun, arrunta iruditzen zaigun herrigintza hori Txillardegiri esker dugu neurri handi batean, soziologoaren esanetan. «Ez dakit irauango dugun, baina eman dugun urratsa Txillardegiri esker izan da», aipatu zuen.

Era berean, pentsalariak Euskal Herriko unibertsitatea eratzea proposatu zuen. «Flandrian aurkitu zuen eredu. Belgikan Valonia eta Flandria desberdintzen ziren eta unibertsitatean istiluak izan ziren ikasle batzuek klaseak frantsesez jaso nahi ez zituztelako. Arazoa konpontzeko, unibertsitate guztiak bikoiztu zituzten, eta funts bibliografikoak banatu. EHUk ez dio Txillardegik proposatutako ereduari jarraitzen, euskarak ez duelako lehentasunik, hirugarren hizkuntza baita.

Oraindik gure karreretan hautzaileak euskaratu ezinean gabil-tza», kexatu zen Iturriotz.

Bere hitzetan, ez ditugu euskal intelektualak ezagutzen: «Gure ikasleek ez dakite nortzuk diren Txillardegia, Xaho edo Campion. Sabino Aranari buruz zerbaitek dakite, esparru espainoletik ikasitako, arrazakeria eta lau pitokeria gehiago. UPVn ez dago gai hauekiko kezkarik. Txillardegik ez al du katedrarik merezi? Asignaturarik? Ikustezinak gara gure herriari».

EGILE KRITIKATUA

Euskal nortasunaren aldeko borroka hura oso lotuta zegoen politikarekin, noski. Frankismoa zela eta euskalduna hilzorian zegoen kultura zen Ekin eta ETA sortu zituenean. Oso plurala zen, modernoa ere bai eta atzerriko korronteei erreparatzen zien. Horregatik kritika zorrotzak jaso zituen. «Lehenengo liburua idatzi zuenean, EAJ bota zitzaion lepora, Europatik zetozen aire berri horiek suntsituko gintuztelakoan. Bigarrena idatzi zuenean, berdin. Hirugarrenean, emakume baten gatazka existentsialista deskribatu zuen testu esperimental batean, eta orduan ezker sektoreko intelektual gazteagoak bota zitzaizkion lepora. Ibon Sarasolak geroago onartu zuen patsatu egin zela berarekin».

"Putzu" liburuan nobela historikoari heldu zion eta tropa karlistak aztertu zituen; karlistek foruen eta euskararen alde egiten zuten, ez Karlos erregearen alde. «Gure historia propioa behar dugula defendatu zuen, besteen historiaren gainean aritu garela (ko beti)», esan zuen Iturriotzek. Txillardegik ondorioztatutako euskara hizkuntza gutxitu bat bada kultura gutxitu batetik datorrelako dela, eta, beraz, euskal lurraldea ere gutxitu egin dela. Horrela, garai bateko Euskal Herriaren eta egungoaren mugak zehazten zituen, erakusteko zer ginen, zer garen eta zer izan gitezkeen borrokatu ezean. Hazi haiei esker euskara bizirik dago oraindik.

Maidar Arregi oñatiarrak jantzi zuen txapela Eskolarteko Bertso Txapelketako finalean


GARA | DONOSTIA

Maidar Arregik irabazi zuen larunbatean Orioko Karela kiroldegian jokatu zuten Euskal Herriko Eskolarteko Bertso Txapelketako finala. Goizeko 11.00etan hasi zen emanaldia, Beñat Gaztelumendi aurkezle zela. Guztira, hamaika bertsolari aritu ziren, 15 eta 18 urte artekoak. Adin horretatik beherakoak, berriak, ez ziren lehiatu, bertsolari aritu baziren ere.

Parte hartzaileek bertsoaldi oso eta biziak eskaini zituzten eta, azkenean, Maidar Arregi oñatiarrak jantzi zuen txapela (Maialen Lujanbiok jarri zion). Txapeldunordea Azkaineko Aitor Servier izan zen (Pati Etxeberriak eman zion saria, eta ondoren bertsoa eskaini zion publikoari). Hala ere, hamaika bertsolariak izan zuten saria. Izan ere, aurtun lehen aldiz ospatuko dituzte Bertso Negulekuak, Gabon garaian, eta bertan

parte hartzeak aukera izango dute gazte guztiek.

Finalaren ostean, denek elkarrekin bazkaldu zuten Orioko aterpean, eta arratsaldean bertso eskoletako ikasleek kantatu zuten. Lujanbiok eta Etxeberriak eman zioten hasiera saioari, librean kantari. Ondoren Orioko, Larrabetzuko, Oñatiko, Barañaingo eta Zarauzko ikasleak jardun ziren. Festari amaiera emateko Obaneuk taldearekin erromeria izan zen.



Saioaren irabazlea, txapela buruan.

BERTSOZALE ELKARTEA